## Hernaniar maiteok:

"HERNANI 1.993" aldizkariaren zenbaki hau iaz hasitako argitalpena sendotzera dator, gure herriaren historiari eta egungo errealitateari buruzko zenbait aspektu jorratuz. Bikoitza da aldizkariaren garrantzia. Alde batetik, gure historiaren zenbait zati eta zuzenki ukitzen gaituzten gai batzuen berri hernaniarron artean zabaltzera heldu baita. Horrek, ez da dudarik, herria geroz gehiago maitatzera eramango gaitu. Baina, bestetik, badu balio gehiagorik ere: hurrengo belaunaldiari ahazturaren baitan gera daitezkeen pasarte batzuk bildu eta eusgarritzat eskaintzea.

Esan dudanaren adierazgarri San Joanak-49 jaietako programa ekarriko dut, zeinak, 24 urte geroago, Blas Zuletaren bi titulu interesgarri zenbaki honetan sartzeko bidea eman baitu, Victor Hugoren ERNANI eta Zalakain, barojatar pertsonaia menturazalea.

Ez nuke areago luzatu nahi, zeren eta zinez uste baitut egokiago dela irakurleak berak zenbaki honek biltzen dituen artikuluen edukina xurga dezan. Bakarrik, lankide izan ditugun pertsonak eskertzea dagokit eta aldi berean zerbait ekartzeko gai diren pertsonak idaztera animatzea, Kultur Departamentuarekin harremenetan ipintzeko eskatuz. Denok dauzkagu oroitzapen edo bizipen pertsonalak nahiz profesionalak, herritarrentzat interesgarriak seguraski, aldizkari honetan argitara hel daitezkeenak.

## *Estimados/as hernaniarras:*

*Este número de "HERNANI 1.993" supone la consolidación de una publicación iniciada el pasado año y que recoge aspectos diversos de la historia y de la actualidad de nuestro pueblo. La importancia de esta revista es doble. Por una parte, supone divulgar entre los hernaniarras retazos de nuestra historia y temas que nos afectan de forma directa, lo que, sin duda, nos permitirá amar más a nuestro pueblo. Pero también tiene como valor el ofrecer a las próximas generaciones un soporte en el que quedan recogidos pasajes que de otra forma quedarían en el olvido.*

*Un ejemplo de lo que señalo es el programa de fiestas de Sanjuanes de 1.949 que nos ha permitido, 44 años más tarde, incorporar en este número dos interesantes artículos de Blas Zuleta sobre la obra "Ernani" de Víctor Hugo y la figura de Zalakain, el personaje barojiano.*

*No quisiera extenderme más, ya que creo que es mejor dejar al lector que se adentre en el contenido de los artículos recogidos en este número. Simplemente, agradecer su dedicación a las personas que han colaborado en este número y animar a todos aquellos hernaniarras que crean tener algo que aportar a que se pongan en contacto con el departamento de Cultura. Todos tenemos recuerdos o vivencias personales o profesionales que pueden ser de interés para nuestros vecinos y que pueden ver la luz a través de esta publicación.*

**JOSE ANTONIO REKONDO SANZ**
**Hernaniko Alkatea / Alcalde de Hernani**

BIBLIOTECA ... HERNANI